

Larratxo

# Sexuari buruzko kezkak

Larratxoko aurtengo jaietan, urtero bezalaxe, antzerkiarekin gozatzeko aukera izango dugu. Ausartak Altzako taldeak bere azken lana, "Hablemos de... Eso", eskainiko digu. Antzezpena Auzo Etxean izango da, hilaren 10ean, 20.00etatik aurrera. "Hablemos de...Eso" Dario Fo, Franca eta Jacopok idatzitako "Tengamos el sexo en paz" lanaren moldaketa da. Guk Ausartak taldeko Ana Maria Goikoetxea, Marain Fernandez eta Maria Angeles Gonzalezekin hitz egin du.



Erika Erkizia [fnoa.: 943 - 31 38 87]

**Zer da "Hablemos de... Eso"?**

Sexuari buruzko bazarriketa da: gai honi buruzko hainbat kezka eta galdera mahaigainean jartzen ditu. Dena den, umore handiz egiten du eta barre egiteko aukera ugari dago.

**Noiz hasi zineten lan honekin?**

"Hablemos de...Eso" lanarekin sei edo zazpi antzeppen egin ditugu honezkeroko.

Ikusleen artean oso harrera ona izan du. Testuak eta moldaketak agerian uzten dute oso antzerki ona dela, nahiz eta antzezpena gu bezalako amateur talde batek egin.

**Zer esango zenieke larratxotarrei antzezpenera hurbil daitezen?**

Esango nieke umore handiko testua dela eta sexuari buruz lekzio bat edo beste eman dezakeela. Dena den, larratxotarrak ezagututa, ziur nago hilaren 10ean Auzo Etxean izango ditugula.

**Eskarmetu handiko taldea**

Ausartak taldea 1992an sortu zen Altzan eta orduz geroztik lan ugari egin da. Urtero lan bat taularatzen dute. Orain arte antzeztutakoen artean, "El lavadero", "Casa pura", "Las amargos lágrimas de Petra Von Kant", "Siempre en otoño", "Todas hijas de su madre" eta "Hablemos de...Eso" aipa ditzakegu.

**Z** CALZADOS ZABALO  
Oinetakoak poltsak eta osagaiak  
Larratxo 16 • Tfnoa.: 39 14 15 • DONOSTIA

**IRALE** HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA  
Larratxo pasalekua 51-53 • Tfnoa.: (943) 393921

**PIZZBURGUER**  
PIZZAK  
HAMBURGESAK  
TXAKUR BEROAK  
OTARTEKOAK  
SANDWITXAK  
**ZANPA ZANPA**  
ENTZALADAK  
ERRAZIKOAK  
MENUAK  
GOZOKAK  
EDARIAK  
Jose Elozegi 124  
943 40 46 86